# Iguzki bat

Pauline et Juliette

F
Oi ene maitia
Dm
Gaur loreak dantzan
Am                                    Bb
Ihintzak sorta kantuz, belaien erdian
Oi ene maitia
Ene ametsen iturri
Maitasun uhainetan zuerkin igeri
Dm       Am       Dm     Am
Iguzki bat, zara maitia (bis)
Oi ene maitia
Uda berri betean
Bihotzaren taupadak, kresalaren soinutan
Eta uda gorrian
Larruak berotzean
Arnasaren gezala, haize fresko idurian
Refrain

Oi ene maitia
Udazken garaietan
Hego haizea lagun, egal egin dezagun
Ta negu ondarrean
Itsas amari begira
Ametsez beztiturik, amodioz berotua

Refrain
Oi ene maitia
Nire zuhaitz itzalsua
Beti goxo zurekin, zu gabe daukat min
Oi ene maitia
Ezti gozo epela
Berriz xista nezazu, maitasuneren erlea
refrain (x2)
Oi ene maitia